



Instituto de Educación Secundaria
Tierra Estella
Lizarralde
Bigarren Hezkuntza Institutua

25-26 ikasturteko aurrematrikula egiteko jarraibideak, ikasle berriei zuzenduak.

Prozesuak hiru fase ditu: [onarpen-eskaera](#) (Hezkuntza Departementua), [aurrematrikula](#) (ikastetxeko formularioa) eta [matrikula](#). Bada urteroko ebazpen bat epeak arautzen dituen.

A- ONARPEN ESKAERA

Gure institutura atxikirik ez dauden eskoletako ikasleek nahitaez aurkeztu behar dute **Nafarroako Gobernuaren onarpen-eskaera** ofiziala, **2025eko martxoaren 24tik 28ra**.

[Nafarroako Gobernuaren web-orrian](#) biltzen dira jarraibideak.

Eskaera ofizial bakarra aurkezten ahal da, eta bertan, lehentasunei jarraikiz, ikastetxeak eta ikasketak jarriko dira. Ikasle batek ez badaki ziur aurreko maila gaindituko duen ala ez, maila bat baino gehiagorako eskaera egiten ahal du.

Eskaera aurkezteko prozedura **EDUCA plataformaren** bidez izanen da; nolanahi ere, aurrez aurre ere egin daiteke IES Tierra Estella-Lizarralde BHIn; eta horretarako, **aldez aurretiko hitzordua eskatu** behar da.

B- AURREMATRIKULA

Onartuak izan diren ikasleek, arestian aipatutako epe berean, **formulario** bat bete beharko dute, eta bertan ondoko datuak jarriko dituzte: maila, modalitatea, programa linguistikoak eta hautazko ikasgaiak. Hori behar bezala egiteko, ikasleek gure hezkuntza-eskaeraren berri izanen dute.

1 - INFORMAZIOA ETA KOMUNIKAZIOA

Hementxe dituzue gure institutua hobeki ezagutzeko eta gurekin harremanetan jartzeko zenbait modu:

- Gure **web-orrian** institutuaren [eskaintza akademikoa](#) duzue; eta bertan modalitate eta etapa bakoitzaren ikasketa-planak daude.
- Gainera, IES Tierra Estella-Lizarraldeak BHIk antolaturiko **Ate Irekien Jardunaldira** etortzen ahal zarete.
 - Lizarra Ikastolakoak eta bertze ikastetxe batzuetakoak: **martxoaren 10ean.**
- Zalantzak argitzeko **helbide elektronikoa:** iesestel@educacion.navarra.es

2 - AURREMATRIKULA. MODALITATE, PROGRAMA ETA HAUTAZKO IKASGAIEIEN AUKERAKETA

Aurrematrikula egitean, nahitaez bete beharko duzue formulario bat hurrengo mailari begira. Gogoan izan honako kontuak:

- Aukeratuko duzuen ereduak (A, G edo D) etapa osorako izanen da.
- PAI programatik datozen ikasleak Programa Eleanitzan sartu ahalko dira. A eta G ereduak gainontzeko ikasleek, nahi izanez gero, Atal Elebidunean sartzeko eskaera egin dezakete, baldin eta eskatutako maila akademikoa badute.
- A ereduak (Euskara ikasgai gisa), edo hautazkoa den Frantsesa hautatzen baduzue, DBH/Batxilergoa etapa osorako izanen da delako aukeraketa.
- Hautazko ikasgaiak lehentasunen arabera jarriko dituzue, baina ez da segurtatzen ahal emanen direnik.
- Aurrematrikula egiteak konpromiso bat dakar zuen aldetik, eta ikasketaburutzak prozesu honetan bildutako datuak erabiliko ditu hurrengo ikasturtea antolatzeko.

[AURREMATRIKULAREN FORMULARIOS. Bete eta igorri.](#)

Formulario hau erabilgarri egonen da martxoaren 24tik 28 ra.

3 - NAFARROAKO ONARPEN PROZESUA ARAUTZEN DUEN ARAUDIA

- Hezkuntza Departamentuaren informazioa. [Web-orria](#)

C- MATRIKULA

[Matrikula](#) ekainean eginen duzue, eta aurrematrikulazioan bildutako datuak hartuko dira kontuan. Dagokionean, igorri eginen dizuegu beharrezkoa den informazioa.